

# ...eta **kitto!**

717 zkia. 2010-IV-16

ASTEKARIA

TOKIKOM

## Usartzako Txistulariak



# 75 URTEAK OSPATZEN

**MULTIOPTICAS**

I.A ZERBITZU OPTIKOETAN

## ZEUK AUKERATU

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR

mō

betaurreko  
progresiboak

147€

kristalak barne





# IRAZABAL

## clínica dental

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552



**ANTONIO MURILLO DOKTOREA:**

## “Odontologia arloko zerbitzu integrala eskaintzen dugu, PUNTA-PUNTAKO TRATAMENDUAK erabilia”

### - Nolako da Irazabal Hartz Klinikak eskaintzen duen zerbitzua?

Ahoaren osasun eta zainketarekin lotuta egon daitezkeen tratamendu eta zerbitzu guztiak eskaintzen ditugu. Hau da, odontologia arloko zerbitzu integrala ematen dugu, beti ere, eta gure eguneroko esperientziari erreparatuta, tratamendurik onena prebentzioa dela oso gogoan hartuta.

### - Gaur egun estetikaren pisua zuten tratamenduetan ere antzeman daiteke, ezta?

Odontologia orokorrari dagokionez, ohiko zerbitzu guztiak eskaintzeaz gain, estetika modu berezian zaintzen dugu. Ordezko hortzen kasuan, adibidez, portze-

lana hutsarekin edo zirkonioarekin egindako koroak erabiltzen ditugu, metala baztertuta. Horretarako goi-mailako kualifikazioa duten laborategiekin dihardugu beharrean.

### - Balna, estetikak ez ezik, pazientearen erosotasunak ere izango du bere garrantzia...

Hala da, ahalik eta gutxien eragozten ahalegintzen gara. Abangoardiako periodontzian espezialistak gara eta gure tratamenduetan goi mailako teknologia ez inbasiboa dabilgu, laserra eta bestelakoez baliatuz eta beti ere pazienteen ongizatea helburu. Inplantologian ere punta-puntako teknikak eta kirurgia bariko oinarriko tratamenduak eskain-

*Irazabal Hartz Klinikaren beharrean diharduen lantaldea goi mailako kualifikazioa duten profesionalak osatzen dute, arlo ezberdinetan espezializatutako hiru sendagilek eta beste horrenbeste klinika-laguntzailek. Ahoaren zainketarekin zerikusia duen edozein zerbitzu eskaintzeko prest dauden profesionalak gustura hartuko zaituzte, zure premien arabera arreta eskainiaz. Errebisioak eta beste hainbat doan egiten dituzte eta bestelako tratamenduetarako aurrekontuak konpromiso barik eskatzera animatu nahi dute jendea.*

**ANTONIO MURILLO RODRÍGUEZ** Doktorea  
Aho-kirurgian, periodontzian eta inplantologian Masterra (Juan Carlos Erregea Unibertsitatea, Madril). Periodontzia Orokorrean (Oinarrikoan eta Aurreratuan) diplomaturia (Espainiako Inplante Elkarteak). Espainiako Periodontzia Elkartearen bazkide-titularra.

**AINHOA ZULUETA** Doktorea  
Odontologia orokorra. Aho-kirurgian, periodontzian eta inplantologian espezializatua (Leon-go Unibertsitatea). Aho-kirurgian espezializatua (Bartzelonako Unibertsitatea).

**SUSANA SIERRA** Doktorea  
Ortodontzia. Espainiako Periodontzia Elkartearen bazkide.

**KLINIKA-LAGUNTZAILEAK**  
Nekane Aizpurua, Estibaliz Gómez eta Ainhoa Vidal.

tzen ditugu, pazienteak egunetan bertan etxera joateko moduan izan dadin.

### - Hartzak zuzentzeko tratamenduak asko hedatzen dihardue, adin guztietan, gainera.

Besteak beste, orain erabiltzen diren tratamenduei esker hartzak zuzentzeko behar den denbora lehen behar izaten zena baino askoz ere laburragoa da eta, gainera, zeramika-bracketak eta horrelakoak erabilia, tratamenduak estetikoki ere eramateko errazagoak dira, besteak ez dute ezer antzematen. Bestalde, beste sasoi batean ez bezala, gaur egun oso hedatuta dago helduen arteko ortodontzia, jada ez da bakarrik umeekin lotzen den zerbait.



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartera  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi,

S. Hernandez eta E. Belar.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

**AZALA:**

Usartza Udal Txistulari Banda

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*)k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

**GALBAHI.-** Alperra. "Mutil hori galbahi osua dozu".

**GALBAHIXA BAIÑO (BE) ALPERRAGUA.-** Oso alperra. "Urlixa beti izan da galbahixa baiño alperragua".

**GALBAHIXAGAZ BE URA, BARRITAN.-** Gauzak edo tresnak, berriak direnean balio dutela adierazteko. "Barritan, galbahixagaz be ura".

**GALBAHIXAN PASATZEKO PREMIÑA IZAN.-** Norbaitek joera txarrak edo okerrak kentzeko premia izan, ildoan sartzeko premia izan. "Horrek be bajakak ba galbahixan pasatzeko premiña".

## ESKUTITZAK

### KAIXOOOOOOIIII

Jardiñeta aldetik dator berrixa, Eibarraren Gaztetxe berri bat Okupatu da, hori bai notizixa!

Oiñ arte Asua Erreka kaleko Tallarra Gaztetxian 8 urtez egon garan gazte talde bat gara. Udalan obrismuak Tallarra Gaztetxia bota nahi dau eta, honen orde, gune beltzetan duguaz lokal zikiñetan sartu nahi izan gaittue. Hau ikusitta eta gure kabuz gestionatuko dogun es-

pazixo bat billatzeko asmuarekin, hainbeste urtez hutsik eta hilda egon dan Jardiñetako "Villa Rufina" etxia berpiztia eta Gaztetxe moduan erabiltzia aukeratu dogu. Atiak zabalik ditzuzue! Gaur arratsaldeko 19:00-etan asanblea informatibua bertan.

Gure ametsak gauzatzen saiatuko garalako... laster arte!!

**EIBARKO GAZTETXE BERRIA**

## asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Nire begien gaineko tituluen eta gertuko argazkien atzean zer dagoen ikusita nahikoa haserretzen naiz. 80 urte banitu edo mutila banintz, ez litzateke pasako. Horrelako etiketak 'nexkei' jartzen zaizkie, paternalismotik. Iturriagaren patillak aspaldi ez ditut ikusi tituluetan, serio hartzen dutelako. Emakumeoi ez zaigu haketeko eskubidea ematen, ez zaigu abizenek deitzen"

(Uxue Alberdi, idazlea eta bertsolaria)

"Euskadi Irratiko kolaboratzaileen kopurua erdira murriztera doazela iragarri zaigu; Radio Euskadiko kolaboratzaileei, aldiz, eusten saiatuko direla dio Joseba Arruti irrati zuzendariak. Euskal kolaboratzaileak kentzen dituzten bitartean, ETB2ko zenbat saiko kolaboratzaileei hegazkina jartzen die estatuko edozein tokitatik etor daitezen"


(Xabier Lasa, komunikazio analista)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

# autuan

## SARATSUEGIKO BIALAREN INAUGURAZIOA

Bihar eguerdian inauguratuko dute Barrena eta Saratsuegi kaleen arteko errepide berria, Miguel de los Toyos alkateak eta zinegotziak bertan direla: zinta moztu eta aureskua dantzatu ondoren inauguratuzat emango dute bidea. Behekuak elkarteren laguntzari esker, txorizo-pintxoak banatuko dituzte.

## FIBROMIALGIA ELKARTEAREN OHARRA

Defibel Debabarrenako Fibromialgia eta Astenia Kroniko Sindromea dutenen elkarteak telefono zenbaki berria du. Beraz, elkarteko arduradunekin harremanetan ipini nahi izanez gero, hau da zenbaki berria: 648977587.

## Dolu eguna hildako gazteak gogoan

**AURREKO ASTEKO EGUENEAN ELGOIBARREN IZANDAKO ISTRIPUAN HILDAKO LAU GAZTEAK** eta egun batzuk lehenago Marokon automobil batek harrapatuta hilda-

ko beste gaztea gogoan, Eibarko Udalak zapatarako dolu eguna ezarri zuen eta, beraz, aurreikusita zeuden ekitaldi publiko guztiak bertan behera laga zituzten antolatzaileek, aspaldian herrian bizi izan ez den atsekabearekin bat eginez.

Zorigaitzoko istripua N-634 errepidean, Elgoibar eta Maltzaga artean (Saturixo baseritik gertu) gertatu zen, apirilak 8an, 20.30ak aldera, Volkswagen Transporter furgoneta batek eta Volkswagen Golf auto batek elkar jo zutenean. Talka bortitzaren ondorioz, autoan zihoazen lau bidaiariak barruan, irten ezinda geratu ziren,



suhiltzaileek atera ahal izan zituzten arte. Automobilean zihoan 17 urteko neska bat bertan hil zen eta beste hiru gazteak (16 urteko neska bi eta 20 urteko mutila) Mendaro, Debagoiena eta Donostia ospitaletera eraman zituzten, baina gauerdiaren aurretik hil zen gidatzen zihoan mutila eta oso larri zauritutako beste neskak ere ordu gutxiren buruan hil ziren. Furgonetan zihoan bikotea Debagoienako Ospitalera eraman behar izan zuten, baina haien zauriak askoz arinagoak izan ziren eta arriskutik kanpo daude biak. Istripua nola gertatu zen argitzeko asmoz, ikerketa abiatu du Ertzaintzak.

## Egunkariako auzipetuak errugabe




**ESPAINIAKO AUZITEGIAK MARTXELO OTAMENDI, XABIER OLEAGA, TXEMA AUZMENDI, IÑAKI URIA ETA JOAN MARI TORREALDAI**, Egunkaria auzian epaitutako bost lagunak errugabeak dira, astelehen eguerdian ezagutzera eman zuten epailearen sententziak jasotakoari jarraituta. Gómez Bermúdez-en 30 bat orrialdeko epaiak, beraz, auziperatuek ETA-rekin loturarik ez dutela argi eta garbi azaltzen du eta, ondorioz, Egunkaria ixteko hartutako erabakia "gehiegizko neurria" izan zela onartu dute. 2003an itxi zuten Euskaldu-n Egunkaria, AVT eta Dignidad y Justicia elkartearen akusazio partikularra, beste oinarriarik ez zutela. Fiskaltzak berak Egunkaria-ren eta erakunde armatuarekin arteko loturarik ez zuela adierazi zuen arren, akusazioak epaiketarekin aurrera egitea erabaki zuen eta, zazpi urteren ondoren, astelehenean ailegatu zen auzipetuek luzaroan itxaroten egon diren absoluzioa.

## 'Eibar' izena A-1ean

**EIBARKO UDALAK ARABAKO FORU ALDUNDIRA JO DU EIBAR ETA GAS-TEIZ** lotzen dituen A-1 autobideko irteera eta bidegurutzetako ezberdinetan 'Eibar' izena agertzea eskatzeko. Udaleko Gobernu Batzarraren ustez herriaren izena ez agertzeak arazoak sortzen dizkie auto-gidariei. Hainbat gidarik salatu dute autobide-

dearen Arabako aldean ez duela jartzen autobidea Eibarrera doala eta, bai ordea, Bilbo edo Donostiara heltzen dela, edo Arrasate eta Bergarara. Miguel De los Toyosen berbetan, "nahiko kontrajarria da Eibar-Gasteiz deitzen den autobidean 'Eibar' izena ez agertzea, irteerarako 1.100 metro falatn izan arte".




## LIDIA JUNCAL FERNÁNDEZ GARCÍA

*Zure begirada joan da eta zure irribarre alaiaren oroitzapena geratu eta bi izarren dirdirak, eta zer min ematen duen egiak!*

IGNAZIO ZULOAGA INSTITUTUA





## Errebal kaleko aparkalekua martxan


**EGUAZTEN GOIZEAN ZABALDU ZUTEN ERREBAL KALEAN ATONDUTAKO-BEHIN-BEHINEKO APARKALEKUA** aurrerantzean erabiltzeko moduan egongo da. Automobilak bertan aparkatzea ez da ezer ordaindu behar, baina gidariek derrigorrez jo beharko dute aparkalekua sarreran ipini duten makinara, bertan automobilaren matrikula idatzi eta ordu birako balioa duen txartela eskuratzeko. Aparkalekuak horrela funtzionatuko du egunero, goizeko 09.00ak eta iluntzeko 20.00ak bitartean; ordutegi horretatik kanpo, gauez, automobilak beste edozein tokitan moduan aparkatu ahal izango da, txartela ateratzeko premia

barik. Bestalde, gehienezko ordu bi horiek igaro eta automobil bera bertan berriro aparkatu ahal izateko, gutxienez pare bat ordu pasatu beharko dira, bestela makinak ez du txartelik emango. Izan ere, herrian lehenengoz martxan ipini den txandakako aparkatzeko sistemaren helburua, erosketa edo enkarguren bat egin behar dutenei automobilak lagatzeko tokiren bat eskaintzea da. Gauetan, berriro, inguruan bizi direnei ondo baino hobeto etorriko zaie automobilak lagatzeko toki gehiago izatea. Aparkalekua maila bitan banatu dute: El Cascoren aldamenekoan 30 bat automobilentzako tokia dago eta beste zatian 68 batentzat.

# anzorik anzo

## Aldapa mekanikoa erdialdea eta Urki gaina lotzeko

**Uda ostean amaituta egon beharko den proiektuaren berri eman du Udalak:** aldapa mekaniko baten bitartez, Jose Antonio Iturrioz kalea eta Arrateko Amaren ikastetxea lotuta geratuko dira, aurreikusita zegoenari jarraituz. Aldapa martxan ipintzeko beharrez 291.000 eurotan adjudikatu dituzte eta ekainean hasteko ak dira. Hiru hilabeteko epean amaituta egotea aurreikusi dute arduradunek. Aurretik ere Untzaga eta Urki gainaren arteko komunikazioa hobetze aldera hainbat eskailera-atal automatiko ipini dira martxan: Armaginetik Urkira eskailera mekaniko bi doaz, beste bat Urkitik Jose Antonio Iturriozera eta beste bat Kurutzekua urbanizazioan dago. Aurrekoei Untzaga plazatik Txaltxa Zelairaino doazenak gehitzen badizkiegu, ikusi dezakegu lan horiekin 70 metroko desnibela gainditu dela. Orain egingo duten aldapa mekanikoak 4 metro eta erdiko desnibelari egingo dio aurre eta bere inklinazio-angelua 12 gradukoa izango da.



Egingo den aldaparen muntaketa.



## 1949an jaiotakoen bazkaria


**MARTXOAREN 27-AN BATU ZIREN 1949. URTEAN JAIOTAKOAK**, eguna jai giro ederrean pasatzeko asmoarekin. Horrelakoetan egin ohi denari jarraitu zioten ikusten dituzuen lagunek eta, taldearen argazki "ofiziala" atera ondoren, Arrate hotelean egindako bazkariarekin amaitu zuten eguneko jarduna.

## eibar kalea

### Errebal kalea

Ibarkurutzen hasi eta Julian Etxeberriaraino doan kalea da Errebal. Kalearen zati handi bat merkatu plaza hartu zuen erai-kinak betetzen zuen, eraitsi zutenera arte. Aste honetan bertan aparkalekua zabaldu dute luzaroan erabili barik egon den orubean. Kaleak, baina, aurretik beste izen bat izan zuen: "Maria Angela". Antza denez, 1883an hil zen M<sup>a</sup> Angela Agirregomez-kortari zor zion izena: andra diruduna izan zen eta testamentuan 1.500 pezeta laga zizkien liberalei, banketea egin zezaten. Esker ona adierazteko eman ei zioten bere izena kaleari.

**Pegora kopurua: 21. Erroldatutakoak: 454.**



asteko

93.532

datua

ikusle hartu ditu Coliseoa antzokiak, orain 3 urte zabaldu zutenetik hona. Hilero eskainitako ikuskizunen batz bestekoa 4 edo 5ekoa da eta orotara 746 ekitaldi hartu ditu antzokiak: helduendako 73 antzezkiak; 50 umeendako; 90 kontzertu eta 499 zine-proiektzioak.

## II. Errepublikaren aldarrikapena

**DOMEKA EGUERDIAN UDALETXE AURREAN EGINDAKO EKITALDIAREKIN**, II. Errepublika gogoratu eta Egia, Memoria eta Justizia eskatu zuen Ahaztuak 1936-1977 elkarteak. Berrehun bat lagun bildu ziren "Gora Errepublika! Gora Herri borondatea!" pankartak presiditu zuen ekitaldian eta, ekitaldiarekin hasi aurretik, aurreko egunetan Marokon autoak harrapatuta zein Elgoibar-ko istripuan hildako eibartar gazteak gogoan izan zituzten. Hizlariak Paco Barreña (bandera errepublikarra jaso behar zuena, baina osasun arazoengatik ezin izan zena etorri), Antonio Cabrero (asasinatu zuten Pitillas herriko alkate errepublikarra) eta Casimiro Pérez (Roberto Pérez Jauregi 1969an manifestazio batean Eibarren erail zu-


tenaren aita) gogoratu zituen eta bildutako txaloak jaso zituzten. Amaitu aurretik, Memoria Historikoaren inguruko gaur egungo egoera ere errepasatu zuten, Garzon epailearen kasua tartean zela.

### Sozialisten txapligoak

Apirilaren 14an bertan, eta urteroko zitari hutsik egin barik, alderdi sozialistako kideek txapligoekin gogoratu zuten Errepublikaren aldarrikapena.



Txaltxa Zelaian batutako PSE-EE alderdiko kideek 36 txapligo bota zituzten, II. Errepublika aldarrikatu zela 79 urte betetzen zirela ospatzeko. Urteroko moduan, Eibarko alderdi sozialistako kide ugari hartu zuen parte ekitaldian, tartean Miguel de los Toyos alkatea eta hainbat zinegotzi.



14ko txapligoak Txaltxa Zelaian.

## Eguneko Zentroa inauguratu da Ipuruan



**ASTELEHENEAN HASIKO DIRA BEHARREAN AURREKO ZAPATUAN INAUGURATUTAKO** Ipuruako Eguneko Zentroan. Egoitza Ipuruako dorreen azpian duen zentroak 19 lagun hartzeko lekua du, 143 metro karratuko azalera. Justu aurrean, parean izango duen beste lokal batean joango dira bulegoa, biltegia eta garbitegia. Zabaldu berri duten zaharrendako eguneko zentroa ekimen

pribatuaren ondorioa da: asteko zazpi egunetan egongo da zabalik, 09.00etatik 18.00etara eta oso zerbitzu eskaintza zabala egongo dela aurreratu dute arduradunek, beti ere bertara joango diren nagusien premien arabera. Orain arte eguneko zentro bakarra egon da gurean, Egogain Gerontologia Zentroan: horretan dauden 25 plazei zentro berri honen 19ak gehitu zaizkio.



## Aire kalitatea neurtzen

**TXALTXA ZELAIKO PARKEAN AIREAREN KALITATEA NEURTZEN DUEN FURGONETA DAGO KOKATUTA** eta hilabetez egongo da bertan. Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari egindako porposamen baten ondorioz egiten dihardute ikerketa hau eta, aurretik, Urkizuko eskola alboan dagoen parkean eta Txaltxa Zelai parkean bertan egon da furgoneta airearen kalitatea neurtzen. Aurreko urteetan hartutako datuen arabera, 2008an egunen %92,1ak izan dute aire-kalitate ona edo onargarria, 2007an egunen %85,5ak, 2006an %76,4ak eta 2005ean %87,4ak.


## PILI IBAÑEZ BASTARRIKA

(2010eko apirilaren 8an hil zen, 49 urterekin)

**"Aingeru bat gehiago dago zeruan. Izar bat gehiago gauean"**


MAITE ZAITUGU. ZURE FAMILIA.

*Senideen izenean, eskerrik asko hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.*




*Fidel Saez eibartarrak 102 urte bete zittuan martxuan. Izan be, gero eta jende gehixagok pasatzen dau 100 urtietako hesixa eta, esaten dabenez, etorkizunian bizi-esperantzia luziagua izango da. Hiru zifratara heltziak, halanda be, batzuri ez detse horrenbeste graziarik egitten, kontua zelan aillegatu dalako, euren berbetan.*

## Ehun urte hartzia gustauko jatzun?



**Mª IGNACIA ETXABURU**  
88 urte  
etxeoandria

88 urte diitudaz eta gustauko jatan ehun hartzia. Nahi bai, baiña ia zenbat hartzen diitudan. Alabiakin bizi naiz eta oso ondo nabil. Oindiño esan leiket balio dotela gauza askotarako. Bizitzia motza egitten dala esango neuke 88 urteren ostian.



**BELÉN MOLINA**  
45 urte  
erizaiña

Egixa esan ez dot sekula horretan pentsau, baiña begittantzen jata aillegatzekotan ondo heltzia gustatuko jatala. Batez be burua ondo eukitzia gustatuko jatan, nere kabuz moldatzia gauzak egitterako orduan. Holan bada, ez jatan inportauko ehun urtera aillegatzia.

**RICARDO SORRIKETA**  
54 urte  
langabia

Gustatuko jatan, noski, eta ahal bada, gaiñera, lanian jarraitzia oindiño. Ez jatan bape inportauko ehun urte hartzia, izan be, horrek esan nahiko zeban bizittasuna dakazula, bizitzeko indarra eta gogua. Gustatuko jatan, gaiñera, oingo genixuarekin aillegatzia (barriak).



**OSKAR SAN MARTÍN**  
44 urte  
irakaslia

Ez dakitt. Ehun urte asko dira, eta inguruko pertsona nagusixak ikusitta, pentsatzen dot ez nebala nahiko ehun urtera aillegatzia. Fisikoki nahiko ondo jarraitzeko badagoz sendagaixak, baiña buruari bihar dan moduan eusteko pentsatzen dot ezetz, orduan, ez dakitt gustatuko jatan.



**PREST**



**MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA**

**ARETO NAGUSIAN**  
etorri aurretik izena eman!

**902 110 436**  
[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

# ATE IREKIAK

Gel Eskola Politeknikoa

**ARRASATE**

APIRILAK 24 larunbata - 11:00

**ORDIZIA**

APIRILAK 17 larunbata - 11:00

Enpresagintza Fakultatea

**IRUN** 2. zikloa

MAIATZAK 6 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

**ESKORIAITZA**

APIRILAK 22 osteguna - 18:00



*Hiru mende laurden bete dira Eibarko Txistulari Bandak lehen kontzertua eskaini zuenetik. Orduan aritu zen txistularirik bandan ez dago, baina bandako beteranoenarekin egon gara berriketan, Jose Luis Perez Sarasketarekin. Esperientziaz beteriko berbak irtetzen dira bere ahotik.*



Jose Luis Pérez Sarasketa, bigarrena ezkerretik hasita, 1969ko Txistularixen Udal Bandarekin.

JOSE LUIS PEREZ SARASKETA, txistularia:

## “Txistularitza nire bizitza da”

### - Noiz hasi zinen Eibarko Txistulari Bandarekin?

Gogoratu behar da txistulari bandak duela 75 urte eskaini zuela lehen kontzertua, 1935. urtean, baina ni beranduago hasi nintzen. Ni txistulari bandan sartu nintzenean gogoratzen dut Lucio Bengoa eta Pedro Alberdi gelditzen zirela lehen kontzertua eskaini zuten horietatik. Jende faltan zebiltzan eta, orduan, Juan Larrinaga eta niri deitu ziguten bandako kide egiteko. 1968. urtea zen eta orduan sartu nintzen bandan. Aurretik Soraluzeko txistulari bandan, Esziko Aman, izan nintzen 17 urtetan zehar, eta Kezka dantza taldean ere ibiltzen nintzen,


beraz, Eibarrera etortzeko beste aitza bat zen txistulari bandan aritzea. Ojanguren eta Egiarekin bilera egin eta horrela sartu nintzen. Sartu eta berehala zuzendari zegoena hil eta ni egin ninduten zuzendari. Orduan, poliki-poliki lanean jarri ginen, banda osatu genuen jende berria ekarri eta banda handitu egin zen. Adibidez, gaur egunean dabilzan Javier Zorrakin eta Mireya Astiz batu ziren guregana, eta baita balio handiko beste gazte batzuk ere: Jose Miguel Laskurain, Elena Perez eta Enrique Montero, besteak beste.

- **Eibarko txistulari banda bultzatu zenuen, beraz.**

Bai, esan daiteke baietz. Soraluzetik esperientziarekin etorri nintzen eta gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatu ginen.

- **Gaur egunean baino askoz ere jende gehiago zebilen orduan bandan.**

(Pentsakor) Gogoratzen dudanez Juan Larrinagak 500 bat dantzari zituen Kezkan eta nik 200 bat txistulari. Izugarria zen hura, demaseko afizioa zegoen herrian. Baina ondoren gauzak aldatzen joan ziren, gizartea aldatzen joan zen eta jendea txistularitza uzten joan zen. Bestetik, gazteak kirola egitea nahiago zuten txistua jo baino, beraz, bandako jende kopurua murriztu zen.



**RAMONA AIRAS CID**  
2010eko apirilaren 12an hil zen,  
89 urterekin



Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



**- Horren adibide da gaur egungo bandaren txistulari kopurua.**

Hamar gaude gaur egun bandan, baina oso gustura eta oso ondo gaude. Gazteak daude bandaren buruan eta kideen maila oso-oso altua da. Kontserbatorioko maila dute eta Jose Ignazio Ansorenarekin ikasten ibilitakoak dira, adibidez. Urteak joan

**Maiatzak 16.**— Kontzertua, Cielito Musika Bandarekin batera. Orain arte ez dute inoiz eskaini horrelakorik, programako pieza guztiak elkarrekin joko dituzte.

**Ekainak 13.**— Ganbera-Musika eskaintzeko kontzertua Coliseoan. Gaur eguneko piezak txistuarekin interpretatuko dituzte, hainbat instrumenturekin lagunduko dieten musikariek batera.

**Ekainak 23.**— Aurtengo San Juan jaietan, Danborradan aterako duten karrozak omenaldia egingo die txistulariei. Leire Kareagak dihardu karrozaren diseinuan beharrean.

Eta, Exfibar filatelia erakusketaren testuinguruan, Eibarko Txistulari Taldearen omenezko zigilu-markatzekoa aurkeztuko dute.

**Uztailak 17.**— Elgoibarko Txistulari Bandarekin batera, kalejira Eibarko kaleetan.

**Urriak 17.**— Kezka Dantza Taldearekin batera, ikuskizun berezia: dantzak eta txistuaren musika erabiliko dituzte diziplina biek Eibarren egindako ibilbidea azaltzeko.

**Azaroak 14.**— Donostiako Udal Txistulari Bandaren kontzertua.

**Abenduak 26.**— Gabon Kontzertua, Sostoa Abesbatzarekin batera.



urteak etorri maila altuari eusten saiatzen gara eta pentsatzen dut lortzen dugula. Kalejirak egiten ditugu, kontzertu ezberdinak... pozik gaude. Gainera, partituren artxibo garrantzitsua daukagu eta hori oso garrantzitsua da guretzat.

**- Zer eman dizu txistularitzak?**

Nire bizitza da. Pentsa, 13 urterekin hasi nintzen txistularitzan eta 60 urte daramatzat mundu horretan. Adina igartzen da eta agian gaur egun ez nago baldintza onenetan kalejirak egin eta alde batetik bestera ibiltzeko, baina ahal den heinean laguntzen dut eta edozertarako prest nago.

**- Hainbeste urtetan bandako kide izanik, familia modukoa izango da zuretzat.**

Bai, horrela da. Gainera, aipatu behar dut berriz ere bandako gazteak zoragarriak direla, eta helduenak euren mailara heltzen saiatzen gara. Guk esperientzia eskaintzen dugu, baina eurek oso maila altua daukate. Oso pozik gaude horrekin. Elena Perez nire loibak, adibidez, txistu klaseak ematen ditu eta hortaz bizi da. Bandaren mailaren erakusgarri da hori.

**- Eibarren kontzertu eta ekitaldi asko eskaini dituzue, baina kanpora joateko aukera eman dizue txistuak?**

Gogoratzen dut nola behin Briviescara (Burgos) joan ginen. Oso esperientzia zoragarria izan zen bertan txistua jotzea. Bestetik, Euskal Herriko leku askotan aritu izan gara: Gipuzkoan, Bizkaian, Araban... edonon aritu gara.

**IMH Elgoibar** Ingeniaritza Imh

**HEZIKETA ZIKLOAK eta TXANDAKAKO INGENIARITZA**

**Ate irekiak** **APRILAK 24**  
(11:00etan)

IMH- Elgoibar-Tfnua.343744132 imh@mh.es-www.imh.es

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilbarrizeta 20 - beheko eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

**Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba**

**Tanatorioa eta Errausketa labea**  
Elgoibaran (Signo poligonoan).  
Partikula, mita eta seguru enesi zerbitzuak  
Koroak - Eskelak - Urturianoako eskelak  
Euskal Herri osoan ospitaleen hartzes zerbitzu  
Nazio eta Nazioarteko iruzkiak


**Mugica Ehorzketa**  
Ehorzketa labea

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

**Azpiegitura Zientifiko Haundixen hornitzaille izatia nahi daben (eta diran batzuk) bederatzi enpresak Gipuzkoako Ineustar sortu dabe. AVS enpresa eibartarra dago elkartian, AVS bera sortu eban Miguel Angel Carrera da presidentia eta Azittaingo poligonuan daka egoitza.**

**A**zpiegitura Zientifiko Haundixen (AZH) hornitzaille izatia da Ineustar

osutzen daben enpresen nahixa. Zientzia Industriako Elkarte Espaiñiarra da Ineustar Miguel



Barzelonako Albia.

Kanarietako teleskopixua.



## Zientziari bultzakadia Eibartik


Angel Carrera presidentiaren berbetan, *“eta munduko instalaziño zientifikuetarako lanian diharduen enpresak hartzen ditte bere baitan”*. Teleskopio haundixak, neutroi iturrixak eta partikula sortzailliak dira, bestiak beste, AZH horrek. Ekipamendu berezixa bihar dabe hórrek azpiegiturok eta Ineustar osutzen daben enpresak dira ekipamendu hori hornitzen dabenetariko batzuk.

Bestiak beste, AVS enpresa eibartarrak (Miguel Angel Carrera da zuzendari nagusixa), sektore zientifikorako zehaztasun piezak sortu eta komertzializatzen dittuen Scientifica, zehaztasun piezak mekanizatzen dittuen Swisslan, Serkide, Jema, Desarrollos Mecanicos, Lorange, ITS eta Cadinox enpresek osutzen dabe, zehazki, Ineustar. Denak Gipuzkoarrak. Py-meak eta mikropymeak.

### Estatuan aintzindarixa

Españian aintzindarixa da Ineustar. *“Gipuzkoa Berritzen eta Berrikuntza Departamenduak bultzatu eben elkarte hau. Gonbidatu egin ginttuen, sartu gara beste 8 enpresarekin, eta oiñ dozena bat enpresa interesatu dira, Madrilgo, Bizkaiko, Barzelonako, Murziako, Huelvako, Asturiaseko eta Kantabriakoak”*, diño Carrerak. *“Honек dimentsio nazionala emongo detsa Ineustarri eta, ondorioz, indarra”*.

Autuen eta makiña herraminttaren sektorian, adibidez, badagoz enpresak batzen dittuan elkartiak, baiña zientziaren industrian momentura arte ez. Holan, Carreraren berbetan, *“gaur egunian ez dago zifra errealik esateko zenbateko negoziuxia dagan honen gainian”*. Zientzia eta Berrikuntza Ministeritza hasi da zientziaren



MARTA

LIDIA

EIDER

**Zelai ertzeko lore gorriak udaberriak dizkigu zapuztu. Neskaten irri goxoak nork lezake ahaztu? Gure herriko baratzak dira lorerik gabe gelditu.**

**ZUEK OROITUZ, J.A. Mogel eta Mogel Isasi Bñilko GURASO, IRAKASLE ETA IRAKASLEAK**

**MIGUEL ANGEL CARRERA, AVSkO zuzendari nagusia**



*“Estamentu egokixetan ezagutzera emon bihar dogu Ineustar”*

*idea ekipamenduakin ordaintzia da, baiña gaur egun ez dago teknologixa hori eskindu leiken enpresarik”.*

**Administraziñuaren aurrian indarra**

Miguel Angel Carrerak esan dau sektore gatxa dala teknologixa zientifikuana. *“Batez be sartzia”*. Bere esperientziak emoten detsan jakindurixakin aipatzen dau arazuak sortzen dittuan sektoria dala, bai arlo ekonomikuan, bai eskaintza arluan, bai maila teknikuan, bai maila teknologikuan. Holan, *“Ineustarrek nahi dau sektore barruan daguazen hórrek hobetu eta AZH-i ekipamendua eskindu nahi detsenei horretan lagundu (proiektuak definitzen lagunduz, proiektuak administraziñora hurreratuz...)”*.

Esandakua kontuan hartuta, Gobernu eta Ministeritzen aurrian enpreseko interesak defendiduko ditu Ineustarrek elkartate moduan, *“enpresa txikiak garala erakutsiz, baiña teknologixa altukuak, ikerketa eta garapenean punta-puntan gabiltza azalduz, eta nazioartian biharrian gabizela eta oso baloratuak garala agertuz”*.

**- Zer ekarriko detsa Ineustarren sorrerak Gipuzkoari?**

Elkartia sustatziak bestiak beste ekarriko dau Eibarren kokatuta egongo dala. Hori da ideia eta Bic Berrilaneke laga deskuzan buleguetan kokatuko da elkartia momentuz. Egoitza hemen egotia da asmua, baiña ez dago argi horrek zelako erretornua eukiko daben Gipuzkoarendako. Argi dago Gipuzkoako enpresendako ondo daguala egoitza hemen egotia eta, hazten doian neurrixan, hobia izango da inguruarendako. Masa kritikua egongo da, jendia biharrian ipiñiko dau. Hautu honetan asko dakixan jendia etorriko denez, horrek erretornua be ekarriko dau.

**- Eta AVS-ri?**

4 urte egingo dittugu ekaiñian biharrian eta egindako lanaren errekonozimendua da. Berkeley laborategixakin, Mexicoko UNAMEkin, Txinako Unibertsitate Tekniko-Teknologikuarekin eta ISISekin gabiz, bestiak beste, elkarlanian. Pentsatzen dot AVS-ren hazkunde-ari lagunduko detsala Ineustarrek, batez be, administraziñuaren eta AZH-en aurrian indar haundixagua eukitzen.

**- Zu zara presidentia. Zein izango da zure eginbiharra?**

Ez dago oso argi. Oin jaixo da eta ez da mar-txan dagan elkartate batian sartzia lakua, hor badakizulako zer egin eta zer ez. Egin bihar dotena da elkartia haunditu eta leku egokixetan ezagutzen emotia.

gaiñeko gai-xetan gehixago murgiltzen (izena be hartu dau) eta zientziaren inguruan industria indartsua daguala diño.

Ineustarrek laguntzia eskinduko detsa administraziñuari ekipamenduen gaiñian eraba-

gixak hartzeko orduan, zein instalaziño egin ahal diran esateko. *“Izan be, Espaiñiak portzentai altuak ordaintzen detsaz AZH ezberdiñei, baiña industria ez dago prest hórrek portzentaixok ekipamenduan*

*bueltatzeko, ez dagoelako beharrian horrerri erantzun ahal detsen enpresen masa kritikorik”*. Ineustarrek horretara eta erretorno egokixetara be heldu nahi dau. *“Erretorno hori oin diruakin ordaintzen da eta gure*


BIRZIKLATZEKO BEREIZTU

Plastikozko ontziak, latak eta brick motako ontziak

Kartoizko eta paperezko ontziak, egunkariak eta aldizkariak bakarrik

TEEN-  
AJEA

"la Caixa"



Uretan ondo dabiltzan eibartarrak asko dira eta horren erakusgarri berria da Nora Varela. 13 urteko neska honek Espainiako 10 igerilari onenen artean sartzea lortu du 100 metroko bular estiloan infantil mailan eta ez edozein modutan. Frantziatik Madrilera bidaiara egin eta gero lehiatu baitzen.

**NORA VARELA, igerilaria:**

**“Orain arte egindako guztiak merezi izan duela ikusi dut”**

**- 100 metroko bular-igeriketan Espainiako lehen hamarren artean sailkatu zara. Zer ekarri dizu maila handiko lorpen horrek?**

Batez ere, poz ikaragarria izan da niretzat, horrelako zer-bait lortzea handia dela pentsatzen dudalako. Bestetik, horrela ikusten dut aurretik egindako lan guztiak merezi izan duela.

**- Espero zenuen horrelako emaitza lortzea?**

Ez. Izan ere, sailkapenean 21. postuan nengoen kokatuta eta nahiko zaila zen lehen hamarren artean sartzea. Gogoa baneukan, baina ez zen batere erreza sartzea.

**- Jakin izan dugu lehiaketaren egun berean Frantziatik Madrilera joan behar izan zenuela. Nolakoa izan zen txapelketa?**

Eskolakoekin bidaiara egin genuen Frantziara eta goizeko 05.00etan Madrilera bidean jarri behar izan nuen txapelketan parte hartzeko.

Nahiko gogorra izan zen, baina tira, emaitza ederra lortu nuen.

**- Bular estiloan lortu duzu emaitza zoragarri hori, baina beste estiloren batean ere ibiltzen zara lehiaketan?**

Gehien bat bular-igeriketa egiten dut, baina estilo-igeriketan eta crawllean ere ibiltzen naiz. Crowlean, adibidez, marka minimoa lortzeko oso gutxira gelditu nintzen.

**- Hain emaitza onak lortzeko, zenbat entrenatzen duzu?**

Astean 6 egunetan ibiltzen naiz, eta egun bakoitzean ordu eta erdi edo ordu bi egoten naiz igeriketan. Nahiko gogorra da, denbora asko delako eta sakrifizioa eskatzen duelako, baina aurretik esan bezala, uste dut merezi duela.


**- Zeintzuk dira zure helburuak igeriketa munduan?**

Momentuz Espainiako txapelketa irabaztea. Zaila izango da, baina uste dut dena lortu ahal dela nahi izanez gero.

## LIDIA JUNCAL FERNÁNDEZ GARCÍA

*Errealitate bat, amets gaizto hau;  
sekretu bat, bere irribarrearen oroitzapena.*

**SAKUN** IGNAZIO ZULOAGA INSTITUTUKO GURASO ELKARTEA





# Kokein, Japonian enperadore

**Musika talde eibartarra Japonian izan da Aste Santuan eta hainbat kontzertu eskaini ditu. Esperientzia zoragarria izan da Kokeinekoentzat eta eguzkia jaiotzen den herrialdean bizitakoa asimilatzen daude momentuz. Izan ere, hau izan da nazioartean egin duten lehen bira, eta ez da nolana hikoia izan.**

**O**so ondo pasatu dugu. Esperientzia moduan demasekoa izan da”, dio Haritz Lete Kokeineko baterajoleak. Euskal Herriatik kanpo Bartzelonan, Galizian edo Valladoliden aritu izan dira, adibidez, eibartarrak aurretik, baina estreineko aldia zen penintsulatik kanpora zihoazela kontzertuak eskaintzera. Eta bai urrun gainera: Japoniara. “Zoragarria izan da kultura ezberdina duen herrialde batean jotzea”.

Martxoaren 31tik apirilaren 6ra arte izan da Kokein taldea ekialde urrunean. Euren managerrak, Javik, japoniar-argentinarrak batekin kontaktua zeukan aurretik, “Fermin Murguruza bezalako abeslariarekin ibilitakoa dena”, eta elkarlanean aritu izan dira. “Hainbat talde japoniarren birak antolatu dituzte Euskal Herrian, adibidez, eta guri hara joateko au-

kerak sortu zitzaizgun. Aste Santuan joatea egokiena zela erabaki genuen eta hara abiatu ginen”, dio Letek.

## “Oporrak bezala”

Kontzertuei dagokienez denetariko publikoa aurkitu dute. Batzuetan jende gutxi egon da eta besteetan aretoak bete egin dira. “Tokyoko talde batekin batera jo genuen behin eta aretoa beteta zegoen”. Hala ere, Letek adierazi du jendearen jarrera dela garrantzitsuena. “10 eta 300 pertsonaren aurrean aritu gara. 10 lagunaren aurrean jotzean zaila da topera egotea, baina han bazegoen tipo bat 30 pertsonak besteko balioa zuena. Batzuetan hobe da pertsona bakarra egotea, gehiago egon eta ezer transmititzea baino, zu ere emozionatu egiten zarelako”.

Emozionatu, asko emozionatu ziren zaletu japoniarrak Ko-



keinekoek The Blues Hearts talde japoniarraren abesti bat jotera. “Himno modukoa da, 1980. hamarkadan arrakasta handia izan zuena”. Kokeinen abestien letrak zaletuek ez zituzten ezagutzen, baina punk-rock talde honekin publikoa bereganatu egin zuten eibartarrek.

Esperientzia zoragarria izan bada ere, Kokeinek ez du pentsatu merkatu asiarrera hedatzea bidaia honekin. “Oporrak bezala hartu genituen”, dio Letek, “gure musika eraman dugu, baina ez dugu merkatua ikusi”. Batez ere, esperientzia berria bizi izan nahi dute. “Euskal Herriko merkatuan sartzeara ere zaila da; beraz, pentsa”.

## Disko berrirako lanean

Musikari eibartarrak herrira heldu berri dira eta bizitakoa asimilatzen dihardute, baina epe motzean ez dute hara bueltatzea pentsatzen. “Ni bueltatuko nintzateke, duda barik. Ea aukera daukagun berriz ere”. Zea Mays taldea, adibidez, Japonian ibili zen eta, ondoren, berriz joan zen herrialde asiarrera.

Momentuz abesti berriak sortzen jarraituko du Kokeinek. “Disko berria atera nahi dugu, baina ezin dugu data zehatz bat eman. Lan erritmoaren arabera zehaztuko dugu hori, baina bitartean lanean jarraituko dugu lokalean”. Aritatô Kokein.

# DESAFIOA

# BIDE-ALDE SOZIEDADEAN

**MAIATZAK 7**  
**BERTSO-AFARIA**  
21.30etan

Jon Mikel Mujika/Julen Sololuze/Mikel Arrillaga **VS** Lander Ibarluzea/Joseba Artze/Eneko Arrate

# EIBAR-ETXEBARRI

**SARRERAK**  
...ETA KITTO!-n  
18 € (bazkideak 15)

# GREMIOEN GIDA

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12

## ANTENAK

**BALATZ** S.L.  
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37

Tfnoa. 943 20 05 08  
Faxa. 943 20 04 94

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta beheha

Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ERREFORMAK

Obra gauzate proiektuak  
Obra zibila eta eraikuntza  
Obra osoa, giltza eskura  
Gremioen koordinazioa  
Beherehabilitazioa etxeetan  
Etxeetako errehabilitazioa  
Fatxadetako errehabilitazioa



**ELGETA-KALE** (Punto y Aparte-ren ondoan)  
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799  
Faxa. 943 530 392 [ailaproiektuak@hotmail.com](mailto:ailaproiektuak@hotmail.com)

Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50  
Faxa. 943 20 73 60  
[www.trinmer.com](http://www.trinmer.com)



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK



Proiektu eta erreformak  
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98  
ROSARIO 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

## AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota  
guztietako lanak

Ateak - Tarimak  
Altzariak

Milaflores 10

Tfnoa. 943 20 55 55

## ELEKTRIZITATEA



ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -  
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA  
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

**ELECTRICIDAD  
I T I A S.L.**

INSTALAZIO ETA MUNTAIA  
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 beheha Tel./Faxa. 943 12 73 75  
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

## GARBIKETAK



INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13

Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94  
[www.escudero.euskalnet.net](http://www.escudero.euskalnet.net)

Aroztegia  Ebanisteria  
 Obra aroztegia



Egiturak, barruko eta kanpoko atekak,  
armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,  
eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

**CRISTALUX**  
Complejos

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

[cristaluxbe@gmail.com](mailto:cristaluxbe@gmail.com)  
Tfnoa. eta Faxa:  
943 20 65 08  
Mobila:  
659 58 35 32 Ind. Ojanguren, 1 - beheha (14 ac)

SUKALDE ALTZARIAK

\*  
AROTZEGIA  
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 beheha Tel. 943 20 29 27  
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
Mobila: 657 79 56 78

**GURIA**

ELEKTRIZITATEA

\* Muntaita eta  
proiektu elektrikoak



Matsaria 2 - 7. pabilioia  
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27  
[www.electricidadguria.com](http://www.electricidadguria.com)

Limpieza  
Multiservicio  
Eibar

Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615  
Mobila 688 609 171



Barrena, 26 - 6. C

**TREJO**  
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta  
mantenimendua



- Barne apainketak
- Mantenimendu  
eta automatismoak

**MANTELEC**, S.L.

Ubitxa 7-11

Tfnoa. 943 70 10 44  
Faxa. 943 20 85 48

# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## IGELTSEROAK



**IRAIZABAL**  
CONSEJO REGULADOR, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSERITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

## KLIMATIZAZIOA

klimatizazioa  
energi berriztagarriak  
proiektuak



**santillán**  
klimadenda™

Txaltxa-Zelai, 14  
Tel. 943 03 10 00 Faxa. 943 53 10 18  
info@klimadenda.com [www.klimadenda.com](http://www.klimadenda.com)



- PINTURAK
- ESTUKOAK
- GOTELE
- PAPERETATZE
- LAMINATUAK
- KORTXOA
- MOKETA
- SINTASOLA

**Arregui y Cortes, C.B.**  
Ego-Gain, 3 Tel. 943 20 34 09 Mob. 600 587 335

## ITURGINTZA

**INDA** iturgintza



UR, GAS eta  
KALEFAKZIO  
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxe: 943 12 18 64 (tailerra)  
Mobila: 669 29 34 63 **Asua-Erreka, 2**

## KRISTALAK



**ACHA Kristaldegia**

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
ERREKATXU 3<sup>an</sup>  
eta faxa: 943 20 39 03



Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

**Pintura**  
Goi mailako  
dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO  
Tel. / Faxe: 94 620 03 01  
Mobilak: 607 41 71 81  
666 74 30 98

## SARRAILAGINTZA



**GILTZAK**

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua  
Segurtasun-instalaketak  
Sarrailen egokipenak  
Segurtasun kutxak  
Era guzietako giltzen kopiak  
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

**LARRIALDIETARAKO: 943 701 391**  
(08.00etatik 24.00etara)

**Arragueta, 3** [www.giltzak.com](http://www.giltzak.com)  
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

## PINTURAK



Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kokakazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etzerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.  
943 20 05 94  
T. Etxebarria, 8 - behea



**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

San Juan, 15  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



**PINTURAS**  
**ARRATE, S.L.**

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 [parrate@terra.es](mailto:parrate@terra.es)  
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

## Samuel Sánchez lehenengoa izan zen Arrateko helmugan

**EIBARKO TXIRRINDULARITZA ZALETUEK BIKAIN ERANTZUN ZUTEN AURREKO EGUEN ETA BARIKUAN** Euskal Herriko Itzuliaren bisita gurean izan genuenean. Arraten amaitu zen etapa ikusgarria izan zen eta, azkenean, Euskaltel-Euskadiko Samuel Sánchez Alejandro Valverde eta amaieran itzulia poltsikoratu zuen Christopher Horner-i nagusitu zitzaizen. Eibartik irten zen 5. etapak, berriz, Elgoibar-ko istripuan hildako gazteak izan zituen gogoan, irteeran Agur Jaunak-a eskainiz.



### OTXOA DOMEKAN

Kadete mailakoentzako Otxoa Memoriala probak bere urrezko ezteiak ospatuko ditu aurten eta, hori dela-eta, mailako Gipuzkoako txapelketa izango da jokoa. Goizeko 10.30etan irtengo dira Untzagatik eta, 66 kilometro egin eta gero, 12.00ak bueltan helmugaratuko dira Urkizun, Zubigainen aurrean. Eibar-Elgoibar-Maltzaga-Eskoriatza-Eibar izango da ibilbidea.

### DEBABARRENA FRANTZIAN

Juanjo Sebastianek zuzentzen duen Klub Deportiboko emakumezkoen txirrindulari taldea Frantziako errepideetan dihardu zailtzen, Italiako Giroa ikuspuntuan dutela. Violle de Pujolseko Prix-ean, Pereiro, Santesteban eta San Sebastian 2. multzo baten sartu ziren.


## Malaga izango da Eibarko errugbilarien aurkaria promozioan

**IA AZKEN UNERA PUNTU BAKARRAREN (13-14) ALDEAREKIN HELDU ETA GERO,** durangarren entsegu bategi erabaki zuen zein izango zen sailkapeneko azkenekoa. Postu horretatik libratzeko helburua bete barik, Hierros Ane-txekoek aurkari gogorra izango dute domekan hasiko den pro-

mozioan: Malagaren aurkako norgehiagokak maiatzean jokatukoak ziren, baina andaluziarren eskaera onartuz hamabost egun aurreratuko da lehia hori. Itzulerako partidua Unben izango da, hilaren 25ean eta hor putrearen hamabostekoak adore handia erakutsi beharko dute mailari eusteko.

## Wus-huko onenak Eibarren dute habia

**BESTE BEHIN RAMON QUINA ETA JOSE M<sup>o</sup> RUIZEKIN IKASITAKOIA** Iruñean erakutsi zuten Ttatt gimnasio-ko hiru ordezkariak. Anaitasuna kiroldegian jokatu zen Nafarroako txapelketan, Euskadiko selekzioa ordezkatu zuten Eibarko hirurak dominekin etorri ziren: Miren Vidalek urrezkoa irabazi zuen Ipar Tradizionalean, Eneko Bazek gauza bera egin zuen Hego Tradizionalean eta azken modalitate honetan Eric Lópezek zilarrezkoa bereganatu zuen. Zein gazte diren ikusita, progresio margen handia dute hirurek.



## Sei domina Kalamuako judokentzat Landetako Tarnosen

**DOMEKAN LANDETAKO TARNOSAN JOKATUTAKO INFANTIL ETA KADETE MAILAKO** "Francisco Herrero" torneoan, hamar klubetako 120 bat judokek hartu zuten parte, bertan sei domina eskuratu: Julen Ramonek bi lortu zituen (urrezkoa infantiletan eta zilarrezkoa kadeteetan), Eneko Loresek urrezkoa kadeteetan, An-

der Muñoz ere irabazlea izan zen infantiletan eta zilarrezko banarekin etorri ziren Asier Nuñez eta Asier Sebastian.

Manu Agirrek epaile lanetan jardun zuen bezperan Zaragozako Monzalbarban 23 urteko azpiko sektore fasean. Asteburu honetan Andorran lehiatuko da Kalamuako beste ordezkari bat.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txalixa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 201095 fax: 943 202564



- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73



## Aste Santu betea Urkikoentzat

**JUANJO PAGEIK ENTRENATZEN DUEN JUBENIL MAILAKO TALDEA LLORETEKO SAN JAIME** nazioarteko XXXII. torneoko azpitxapeldun geratu da, finalean Valentziako La Creurekin 1-0 galdu eta gero. Aurretik, 2-1 kanporatu zuten Montegiorgio Italiako taldea finalerdietan eta, horra iritsi baino lehenago, euren multzoko lehenak izan ziren.

Hodei eta Alberto Lama-riarok prestatzen dituzten




Urkiko nesken taldeek, bestalde, Gasteizen jokatzeko emakumezkoen foball jardunaldietan izan ziren. Seigarren edizio horretan, Euskadiko 24 talde izan ziren lehiari eta eibartarren lehenengo taldea 5. postuan geratu zen.

## Garro Euskadiko azpitxapeldun xakean

**JOAN DEN ASTEAN ZEHAR GURE HERRIKO UNIBERTSITATE LABORALEAN JOKATUTAKO** Euskadiko jubencil mailako xake txapelketan, Klub Deportiboko Julen Garrok 2. postua lortu zuen eta Edu Olabe beste eibartarra zortzigarren sailkatu zen. Emaizta horrekin, Garrok Euskadiko selekzioarekin jokatu-

ko du uztailaren amaieran, Linaresen antolatzen den nazioarteko txapelketarekin batera, bertan jokatu den Espainia-ko txapelketan.

Haritz Garro aurrekoaren anaiak, bestalde, bikain jardundu Zornotzan jokatu den Euskadiko txapelketa nagusian, bere aurretik zeuden hainbat zerrenda-buruei irabaziz.



## Euskal Herriko atleta onenak izango dira bihar arratsaldean Unben

**KLUBEN ARTEKO 1. MAILAKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA JOKATUKO DA BIHAR** arratsaldean Unbenko instalazioetan eta, tartean, zortzi talde onenen arteko lehia izango da ikusgai: han izango dira Real Sociedad, Scania Pamplona, UPV-EHU, Krafft-Atlét. SS, Txindoki, Bidasoa, Celigüeta-Barrutia eta Urdaneta. Jardunaldia 16.30etan hasiko da, mailu jaurtiketarekin, eta

19.30ak bueltan amaitu 4x400 erreleboko lasterketarekin. Tartean, beste modalitateak jokatu-ko dira, ordena honetan: 400 m. hesiekin, pertika, hirukoitza, altuera, 400 metroak, jabalina, 800 metroak, 1.500ak, 110 m. hesiekin, pisua, 100 metroak, 200ak, 3.000 m. oztopoak, luzera, diskoa, 5 km. marxa, 3.000 metroak eta 4x100 erreleboa.

### Malvar 3.a maratoi erdian

Juan Jose Malvar beteranoa 3. postuan sailkatu zen Malagan jokatu den maratoi erdiko txapelketan. Ordu bete eta 33 minutu behar izan zituen M65 mailan brontzezko domina eskuratzeko.



Juan Jose Malvar.

**La Movida eibarresa**  
 Kirola atseginez egunero Borja Rodriguezekin, arratsaldeko 3etatik 4etara

**90.7 Fm**

## Eibarzaleen Eguna eta garrantzi handiko Eibar-Lugo neurketa

**NEGARGARRIA DA AZKEN EIBAR KE-REN AZKEN BI HILABETEETAKO IBILBIDEA,** eta 1. postuaren bila borrokatzetik 4.a ere galtzeko arriskura pasatu da taldea. Herenegun gauean Compostela sailkapeneko azkenarekin galdu zuen eta dagoeneko edozer gerta daiteke, ikusita taldea partidu bakar batean ere ez dela nagusi.



si. Promozioa ere (jokatzea lortzen bada) gero eta gertuago dela ikusita, zaleen urduritasuna ulertzekoa da. Taldea partidu guztietan galtzen hasten bada, marka guztiak hautsi ziren Compostelan, 20. segundorako sartu baitzuten gola galiziarrek.

### PEÑEN EGUNA

Lugorekin domekan, 18.00-etatik aurrera Ipuruan jokatuko duen garrantzi handiko partiduen aurretik, peñen egunaren 9. edizioa egingo da. Aurten, berritasun moduan, azken 25 urteetako hamaikako onena izendatuko dute taldearen bazkide eta akzionistek Ipuruako ate guztietan horretarako presatuta egongo diren orriak beteta. Ferrolen aurkako partiduan hasi zen proiektua, domekan honetan eta Osasuna Promesas-en aurkako partiduan izango du jarraipena.



## Euskal Ligako azken fasea jokatuko dute Arrateko kadeteek Ipuruan

**JUBENILEI IHES EGIN ZIENA KADETEEKIN EZ ERREPİKATZEA** espero dute Arrate eskubaloi taldearen arduradunek eta, bestela ere, orain arte onenak direla erakutsi badute, kantxa faktorea alde izanda, Euskal Liga bereganatzeko gai izango direla. Orain arte jokatutako hogeitun partidutik, 19tan garaile izan diren Fernando

Fernández eta Pablo Aranzetaren mutilak faboritoak dira Bidasoa, Urdeneta eta Zarautze-kin jokatuko duten fasean. Arrateren partiduetako ordutegiak honakoak izango dira: gaur, 20.30etan, Zarautzen aurka; bihar, 18.15etan, Urdenetaren kontra; eta domekan, eguerdiko 12.45etan, Bidasoa aurkari dutela.

## Eskalada eta alpinismo ikastaroak

**GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLAK IKASTARO BI ANTOLATU DITU** maiatzerako: eskaladakoa Nafarroak Peñartean egingo da maiatzaren 8-9ko asteburuan eta glaziare alpinismokoa asteburu bitan izango da, maiatzaren 15-16ko eta 29-30ekoan, Peña Teleran eta Gavarnien. Eskaladakoan hastapenekoak 95 euroko prezioa du eta trebakuntzakoak 115 eurokoa eta glaziare alpinismo-koan lehenengoarengatik (hastapena) 255 euro ordaindu beharko da eta bigarrenarengatik (trebakuntza) 355. Informazio gehiagorako: 943 461 440 zenbakia edo gmf-federatuak@kirolak.net



## Irujo-Barriola maila handiko buruz-burukoa Astelenan

**PROFESIONALETAKO GOIMAILAKO BURUZ-BURUKO LEHIA** izango da Astelenan domeka arratsaldean. 17.00etan hasiko den jaialdian, ligaxkako jardunaldiko neurketa aipagarriena jokatuko da partidu nagusian, atzo pelotak aukeratu zituzten Martínez de Irujo gaur




egungo txapeldunaren eta urtebete lesionatuta egon den Abel Barriolaren artean. Aurretik eta binaka, Berasaluze IX.a-Pascual eta Idoate-Laskurain bikoteak neurtuko dituzte indarrak; eta, jaialdia amaitzeko, Cabrerizo-Ladis Galarza eta Ongay-Larrinaga lehiatuko dira.

**PILI IBAÑEZ BASTARRIKA**  
beti gure oroitzapenean

*ZURE ALABA LIDAREN KUADRILLAREN PARTEZ*

**“LIDE: Beti izango gaituzu zurekin zoriontsu izaten laguntzeko”**



*Taularen alde batean Eibarko bertsolariak. Bestean, Etxebarrikoak. Jon Mikel Mujika, Julen Sololuze eta Mikel Arrillaga batetik; Lander Ibarluzea 'Atxulua', Joseba Artza eta Eneko Arrate bestetik. Nor baino nor arituko dira bertso-desafioan maiatzaren 7an Bide-Alde elkarte gastronomikoan. Nork eramango du txapela?*

**E**uskal Herriko Bertsolari Txapelketa. 2009. urtea. Barakaldoko BEC. Andoni Egañaren nagusigoa amaitu da eta Maialen Lujanbiok maisuki lortu du txapela Amets Arzallusen aurkako finalean. Milaka zaletu txaloka, milaka zaletu bertso-laritzaz gozatzen bere forma handiengan. Publikoaren artean eibartar eta etxeberritar batzuk, bertsozaleak denak, bertsolariak ere. Tartean proposamen bat: herri bien arteko bertso-desafioa.

Horrela gauzatu zen Hankamotzak bertso-elkarteko Mikel Arrillagaren berbetan maiatzaren 7an Bide-Alde elkarte gastronomikoan 21.30etatik aurrera egingo den desafioa. Azken urteetan bertso-afari arrunta egin izan dute, hau da, afaldu eta, ondoren, gaiak bota eta bertsotan egin. *“Aurretik, hala ere, egin izan dugu beste herri baten aurka desafioen bat, gogoratzen dut nola Oiarzundik bertsolariak etorri ziren eta oso gustura aritu zirela”*. GR bidea gogoratzen du Mikelek, herrien arteko desafioak. Etxebarriko hirukoteak onartu egin du desafioa egi-tea, beraz, lehia martxan dago.

#### **“Garrantzitsuena ez da lehia”**

Desafioa, lehia, bada ere, Arrillagak la-



Aurtengoa Bide Alde soziedadean “Ilunabarrian” barruan antolatzen den bertso-afariaren 6. edizioa da. / LEIRE ITURBE

## Desafioa neurri eta errimaz

gun artean egiten den zerbait dela azpimarratzen du. *“Garrantzitsua ez da lehia bera, desafioaren inguruan sortzen den bertso-giroa baino”*. Printzipioz bertso-afari normala egingo da eta, ostean, gai-jartzaileak hainbat gai proposatuko ditu. *“Ez dakit nola planteatuko duen oraindik; imaginatzen dut herri bakoitzeko bertsolari bana elkarren aurka arituko direla bertsotan”*.

Lehia kutsua izango duen lagun arteko bertso-desafio hau, printzipioz, Bide-Alde elkarte gastronomikora hurbilduko diren ikusleek erabakiko dute. *“Ez dakigu txalometro bidez, papertxoetan bertsolarien ize-nak ipiniz edo nola erabakiko den irabazlea”*. Bere berbek diotenez, Arrillagarentzat desafioa irabaztea ez da berebizikoa. *“Ez da saririk egongo eta ez dugu apustu berezirik egin”*.

Hala ere, ohorea beti sartzen da jokoa,

baina Mikelek pentsatzen du etxean jokatzek ez diela zertan abantailik eman behar garaipena lortzeko orduan. *“Pentsatzen dut publikoa neutrala izango dela eta baliteke, gainera, guri gehiago exijitzea etxean jokatzeko”*. Zera gehitzen du gainera. *“Publikoa ezaguna izanik, agian kanpokoan alde egiten dute gehiago gu izorratzeko, nork daki”*.

#### **Sei bertsolari**

Desafio honek publiko aurrean estreineko abesteko balio izango dio Jon Mikel Mujika eibartarrari. Zentzu horretan Mikel Arrillagak irizten dio aukera polita dela desafio hau jendaurrean estreinatzeko. Mujika eta Arrillagarekin batera, bestetik, Ermuko Julen Sololuze arituko da. *“Bizkaiko Txapelketan lehiatzen hasi den gaztea da eta horrelako saioek esperientzia emango diote. Gainera, Etxebarri bueltatzen bagara, beste aukera bat izango luke bertsotan aritzeko”*.

Etxebarrikoen aldean, bestetik, Bizkaiko Txapelketan lehiatzen urteak daramatzaten bertsolari bi aurkitzen dira: Lander Ibarluzea ‘Atxulua’ eta Joseba Artza (honek Euskal Herrikoan ere hartu izan du parte). Artzak Lea Artibaiko txapelketa lortu izan du, eta ‘Atxulua’ eta biokin batera Eneko Arrate gaztea arituko da.

Bertso-afaria eta Eibar vs Etxebarri desafioa ikusteko txartelak salgai daude dagoeneko ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuartea). Euskara elkarteko bazkideek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, 18 euro.



Etxebarriko ordezkariek azken Bizkaiko txapelketan.

Juan Pinilla flamenko-ablesaria izando dugu gaur Coliseoan 20.30etatik aurrera. Andaluziarra pozik da Euskal Herrian aritzeaz eta euskara ikasi nahi duela esan du. Europatik bira egin eta gero heldu da Eibarrera eta euskarazko abestien forman ezustekoa eman dezake Granadakoak gaur.

## JUAN PINILLA, flamenko abeslaria: "Flamenkoa adierazpen unibertuala da"

**- Nolakoa izango da eskainiko duzun ikuskizuna?**

Klasikoa. Nire lanen ildoa jarraituko dut, forma klasikoetatik urrundu gabe. Groucho Marx bezalako izenak erabiltzen ditut, flamenkoan inoiz erabiliak izan ez direnak, eta nire bertsoia egiten diet kontzertu bakoitzean gustatzen zaizkidan azalpenekin uztartuz.


**- Zein esanahi du zuretzat Euskal Herrian aritzeak?**

Euskal Herrian egotea zoragarria da niretzat, maite dudana herrialdea baita. Min egiten didan herrialdea da berarekin gertatu diren injustziengatik. Nire informazio iturriak ez dira oso manipulatuak dauden ofizial horiek, nire kontura informatzen naiz-eta. Bestetik, Euskadin flamenkoa maite duen jende asko dago. Andaluziako presentzia handia dago.

**- Mundu osoan ibili zara flamenkoa hedatzen. Nolako dimentsioa dauka flamenkoak munduan?**

Eskuetatik ihes egiten digun dimentsioa, izugarria. Andaluzian jaio arren, gaur herrialde guztien eta gizateriaren musika da flamenkoa. Musikologoek diote bere jatorria herrian duen musika konplexuena dela; antzeman dut nire kulturaz, nire musikaz eta, orokorrean, nire herrialdeko musikaz benetan maiteminduta dagoen publiko zabala dagoela. 'Seguiriya' batekin negar egin duten japoniarrak ikusi ditut: oso zaila dena benetakoa jakituna ez bazara, baina eurak badira.

**- Nietzsche, Chavela Vargas**



**eta Atahualpa Yupankiren izenak murgildu dituzu, besteak beste, flamenkoan. Musika hau abestea kitarra eta kaxa soilik ez dela erakusteko modua da?**

Flamenkoa adierazpen unibertuala da. Bere aukera estilistikoan itxura poetiko eta aditz-forma asko sartzen dira, beti ezagutzatik egiten bada. Aipatutako autore horiek izugarriko adierazkortasuna dute eta hori flamenkoan kabitzen da. Flamenkoa adierazkortasuna da guztiaren gainetik, emozioa.

**- Kritikoa, idazlea, ikertzailea, zutabegilea... ez zara flamenko abeslari ohikoa.**

Gora topikoak! Badirudi idazten eta irakurtzen ez zekiten abeslarien sasoiari gaudela. Flamenkoan fede handia duen abeslaria naiz, flamenkoa den moduan izaten jarraitzen laguntzen duen zaletua; ez naiz ez arrazista, ez dogmatikoa, zoritxarrez flamenkoan asko existitzen bada ere. Zerbait kontatzeko duen edonorekin gozatzen dut, eta momenturen batean nire abestiekin kontzientziak sentsibilizatu eta gehien duten horien aldera okertuta dagoen balantza hori berdindu ahal izateko munduko injustizien aurka protesta egin ahal badut, oso pozik nago.



## Tatxin eta Tatxan familia giroan

**BIHAR ARRATSALDEAN, 17.00 -ETATIK AURRERA, UMEEN-DAKO IKUSKIZUNA ESKAINIKO DUTE**

Sointek Produksioak-ekoek Coliseoan: "Tatxin eta Tatxan". Tolosarren azken laneko protagonistak Tatxin eta Tatxan izeneko clown-ak dira, baina ikuskizunean parte hartzen dutenen berbetan, "Tatxinek eta Tatxanek eskaintzen dutena, ez da animazio soil. Musika ikuskizun bat da eta gurasoek hurrekin parte hartzeko aukera dute, hala nahi izanez gero". Ikuskizuna edozein adineko umeentzat egokia da, baita txikienez ere (2-3 urtetik aurrerakoentzat). Clown bikotea tartean egonda, emaldiaren ardatza umoreak osatuko du eta abesti dantzagarri eta dibertigarri osatutako

abesti bilduma luzea eskainiko dute. Sonia Ezkerra eta Eriz Alberdi dira ikuskizun honetan parte hartzen duten aktoreak eta ikuskizunaren sortzailea, berriz, Jose Mari Gorostegi "Tomson" da. Sarrerak 3 euro balio du eta alde zuzenekin zapatuan bertan erosteko aukera izango da.

**Hurrengo, Hika Teatroa**

Bestalde, hilaren 23n (barixakuan) helduendako antzerkiak hartuko du Coliseo antzokiko eszenatokia, Hika Teatroa taldearen "Aitarekin bidaiari" lanarekin. Jose Ramon Soroiz, Joseba Apaolaza eta Jabier Muguruza izango dira taula gainean, 20.30etatik aurrera, Agurtzane Intxaurrearen zuzendaritzapean (8 euro).



## Umeen danborradarako entseguak


**EGUAZTENEAN, APIRILAREN 14-AN, HASI ZIREN UMEEN DANBORRADARAKO ENTSEGUAK.**

San Juan jaietan urtero egin ohi den danborradan parte hartu nahi duten umeek ezer baino lehen, derrigorrez, euren ikastetxean izena eman beharko dutela adierazi dute arduradunek. Aste honetatik hasita eta danborradarako eguna ailegatu bitartean, astero egingo dira entseguak, eguaztentean, 19.00etatik 20.00etara Udalak Bittor Sarasketa kalean duen lokalean (Amalur ohian).



## Institutuko en artelanak gaurtik aurrera Portalean

**GAUR ARRATSALDEAN, 19.00-ETAN INAUGURATUKO DA PORTALEAN IGNAZIO ZULOAGA INSTITUTUKO IKASLEEN ERAKUSKETA:** "Eibarko Ignazio Zuloagaren Egungo Islak". Maiatzaren 2ra arte ikusgai egongo den erakusketan 50 bat ikasleren artelanak ikusteko aukera izango da, ohiko ordutegian: martitzetik domekara, 18.30etatik 20.30etara. Erakusketako arduradunen berbetan, "badira sei urte batxilergo artistikoko ikasleekin lanekin urtero erakusketa antolatzea erabaki genuela, artista gazteen lanak jendeari hurbiltzeko helburuari jarraitu".



50 ikasleren lanak egongo dira ikusgai Portalean.

17-18 urte bitarteko gazteen artelanetan teknika eta estilo ugari egiten dute bat eta, besteak beste, marrazketa artistikoa, diseinuaren oinarriak, margogintza, argazkilaritza eta eskultura ikusteko aukera izango da. Gazteen artelanekin batera, Eibarko Artisten Elkarteak apirilaren 9az geroztik martxan duen erakusketa osatzen dutenak egongo dira ikusgai.

### Hitzaldia egunean

Erakusketaren inguruan, bestalde, hitzaldia ere antolatu dute oraingoz, ikastetxean eskaintzen duten Batxilergo Artistikoak hamar urte betetzen dituela ospatzeko asmoz. Hitzaldia egunean, hilaren 22an izango da, 19.00etan Portaleko areto nagusian. Hizlariak José Antonio Azpilikueta, Mikel Garate, Josu Torrealde, Julen Agirre eta Ane Aranberri ikasle ohiak izango dira eta, besteak beste, euren ibilbide profesionalaren eta esperientziaren inguruan egongo dute berba. Komikigintza, margogintza, argazkigintza, animazioa eta eskaparatismoa dira hizlariak garatzen diharduten lanak ikutzen dituzten esparruak.

dia ere antolatu dute oraingoz, ikastetxean eskaintzen duten Batxilergo Artistikoak hamar urte betetzen dituela ospatzeko asmoz. Hitzaldia egunean, hilaren 22an izango da, 19.00etan Portaleko areto nagusian. Hizlariak José Antonio Azpilikueta, Mikel Garate, Josu Torrealde, Julen Agirre eta Ane Aranberri ikasle ohiak izango dira eta, besteak beste, euren ibilbide profesionalaren eta esperientziaren inguruan egongo dute berba. Komikigintza, margogintza, argazkigintza, animazioa eta eskaparatismoa dira hizlariak garatzen diharduten lanak ikutzen dituzten esparruak.


## laburrak

### ANDREA GONZALEZ HUNGARIAN

Hungariako Szebeg hirian kontzertua emango du gaur Andrea González Caballero gitarrajole gazteak. David Paulovic herrialde horretako Goi Mailako Kontserbatorioko irakaslearen gonbidapenari erantzuten eskainiko du emanaldia eibartarrak eta Hungariako telebista katerik garrantzitsuenen emango dute kontzertua.

### INFORMATIKA NA GUSIENTZAT

Biztu koordinakundeak adituz emango duenez, nagusiendako informatika ikastaroetan parte hartzeko matrikulazioa zabalik dago. Apirilaren 26an hasiko dira ikastaroak, Untzagako jubilatuetan, eta ikastaroak emango diren egunak eta ordutegia bertako informazio-paneletan ikusgai ipiniko dute. Matrikula betetzeko, berriz, astelehenean barixakura jo daiteke zentzura, 10.30etatik 12.30etara eta 17.00etatik 20.00etara (eguzten goizetan izan ezik).



**EMAKUME ETA GIZON MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

**BAMETSA**

Toribio Etxebarria, 4

**Helbidea**

**URKIZU PASEALEKUA, 13**

Orbeako dorreetako  
1. solairua

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza
<b>BERRIA:</b> Foto-depilazio Unitatea	15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

## Musika Eskolako gazteak “Oh Happy Day” programaren finalera

**ELENA MARTINEK ZUZENTZEN DUEN EIBARKO KORROA IZAN ZEN LEHENA ETB1-EKO PROGRAMA HORRETAKO FINALERAKO TXARTELA LORTZEN.** Gospel musika erako “Make Joyful Noise” abestiarekin lortu zuten txartela Eibarko gazteek, aurretik ere beste hiru saiotan abesti onenaren saria jaso ondoren. Hori dela-eta, finalerako ere faboritoen artean daude eibartarrak. Lehiaketako irabazlea aukeratzeko finala hilaren 24an emango dute: Eibarko abeslari

gazteek Astigarraga eta Mallabiako taldeekin jardungo dute lehian. Saioko arduradunek aurreratu digutenez, *“aste honetarako kanta bi prestatu dituzte eibartarrek, horietako bat (“Celebration”), OT2 lehiaketa irabazi zuen Ainhoa Cantalapiedrarekin batera. Eibarrera bisitan etorri zen Ainhoa, eta koruko gazteekin batera entsaiatu zuen Musika Eskolan. Eibarko Koru Gazteak eskainiko duen beste kanta: Black Eyed Peas taldearen “I gotta feeling” abesti martxosoa”.*



Finalera ailegatu den lehenengo taldea izan da eibartarra.

Bestalde, martitzenean udaletxean harrera egingo die Miguel de los Toyos alkatuek, *“orain arte lortutakoarengatik zoriontzeko eta fina-*

*la irabazteko animoak emateko. Abestiren bat ere kantatuko dute koruko partaideek, ETBko kamarak ere bertan izango dira eta”.*


## Ikastolaren urteurren jaialdia Astelenan

**JUAN ANTONIO MOGEL IKASTOLAK MENDE ERDIKO IBILBIDEA EGIN DUELA OSPATZEKO EKITALDIEKIN AURRERA EGINEZ,** bihar zapatua, herritar guztiei zabalik egongo den jaialdi berezia hasiko da Astelena frontoian, 19.00etan. Musika, dantzak eta bestelako ikuskizunekin ondo baino hobeto pasatzeko aukera izango dute bertara gerturatzeko direnek. Besteak beste, honako hauek jaialdian parte hartzea dago au-

reikusita: Norton, Kokein, Asier Serrano, Mursego, Kezka Dantza Taldea, Adolfo Jainaga trikitilaria, Gorka Fernández eta Jon Zubizarreta bertsolariak eta Mogel Isasiko ikasleak, aerobic eta breakdance erakustaldiekin. Horrez gain, aurreratu nahi izan ez duten *“sorpresatxoren bat edo beste”* egongo dela diote antolatzaileek. Jaialdirako sarrerak 3 eurotan ipiniko dituzte salgai bihar bertan, frontoiko lehiatilan.



Norton izango da jaialdian parte hartuko duenetako bat.



## Orbegozo, Cielito-ko zuzendariorde

**IÑAKI ORBEGOZO GAZTEA CIELITO MUSIKA BANDAKO ZUZENDARIORDE IZENDATU DUTE.** Aurreko asteburuan Musika Bandakoek Coliseoan eman zuten kontzertua aprobetxatu nahi izan zuten zuzendariordea jende aurrean aur-

kezteko. Urte askotan Jorge Molinak zuzendu zuen Cielito Musika Banda eta zuzendariorde kargua, berriz, Carlos Sánchez Barbak bete zuen. Baina Sánchez Barbak Molinari erreleboa hartu zionetik, banda zuzendariorde barik egon da. Domekako kontzertuan lehenengo pieza zuzendu zuen Orbegozok eta, jarraian, batuta zuzendariari bueltatu zion, bandako beste kideekin jarri eta, egin ohi duen moduan, tronpa joteko. Gaur bertan 25 urte betetzen dituen gazteak ibilbide luzea darama musika munduan eta esparru guztietan ondo moldatzen da. Besteak beste, Euskadiko Gazte Orkestrarekin batera jo izan du eibartarrak.


## Itzioko ikasleak Frantzian

**ITZIO BHI-KO FRANTSES IKASLEEK, URTEROKO MODUAN, KLASEAN IKASITAKO PRAKTIKAN IPINTZEKO** aukera izan dute Frantziara egindako bidaietan. Martxoaren 24tik 26ra bitartean Futuroscope eta Poitiers bisitatzeko aukera izan zuten eta, irakasleen berbetan, *“oso gustura ibili ginen, bidaiaren benetan atsegina izan da”.*




# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, IGOR, zure lehelengo urtebetetzian. Laztan bat etxekuen partez.



Zorionak, JULEN, zortzi urte egin dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ANDONE Agote Gorostizaga, hareñegun hiru urte egin zenduazelako. Famelixaren partetik.



Zorionak, JULEN, gaur hamaika urte egitten ditualako etxeko korrikalarixak. Famelixaren partez.




Zorionak, IRATXE, domekan hamar urte beteko ditte-eta gure neska haundixak. Etxeko guztiaren partez.




Zorionak, ENEKO, gaur zortzi urte egitten dozuz-eta. Laztan bat Leire, Ander eta etxekuen partez.




MAITANEK zazpi urte egin ditte hillaren 8xan eta ANDER-ek bederzti beteko ditte astelehenian. Muxu haundi bat bixori eta zorionak famelixa guztiaren partez.




Zorionak eta muxu pilla bat GARAZI eta NAIA Aizpuruarentzat (8 eta 10 urte), etxeko guztiaren partez. Jarraitu oiñ arte moduan.



Zorionak, MARKEL Pérez, gaur zortzi urte egitten dozuzelako. Famelixa eta lagunaren partez.



Zorionak, ASIER Sebastian, domekan zortzi urte bete zenduaz-eta. Lagun eta famelixaren partez.



Zorionak, MIREN Ereña Lizarralde, hillaren 7xan sei urte bete zenduaz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, AITOR, hareñegun zure lehelengo urtia egin zenduan-eta. Famelixaren partez.


## JAOTAKOAK

- Hugo Alonso Sierra. 2010-III-30.
- Mikel Rubio García. 2010-IV-5.
- Nahia Martínez Barea. 2010-IV-6.
- Jon Alonso Jurjo. 2010-IV-6.
- Ane Urkola Arriaga. 2010-IV-6.
- Kerman Muñoz Herrera. 2010-IV-6.
- Jone Avellaneda Lamas. 2010-IV-7.
- Liher Gil Tubia. 2010-IV-7.

## zinea Coliseoan

### "Millennium 3"

Zuzendaria: Daniel Alfredson  
Aktoreak: Michael Nyqvist, Noomi Rapace, Annika Hallin, Johan Kylén...



Lisbeth Salanderrek ihes egitea lortu du heriotza beldurgarri batetik eta amasa hartuko du. Baina badago hilketa hirukoitza gaineratu nahi diona. Mikael Blomkvist kazetariak egia atzetik jarraituko du eta Lisbeth-en lehenaldi ilunaren bila arriskatu du.

### "Desde París con amor"


Zuzendaria: Pierre Morel  
Aktoreak: John Travolta, Charlie Wax, Jonathan Rhys Meyers, James Reece...



Pariseko Estatu Batuetako enbaxadako langile gazte bat atentatu handi bat prestatzen dihardutela jakiten du. FBIko agente batekin elkarlanean, terroristak zeintzuk diren eta biktimak ez izateko ahaleginean jardungo du peskizan.

### "Alicia en el país..."

Zuzendaria: Tim Burton  
Aktoreak: Mia Masikowska, Johnny Depp, Helena Bonham, Alan Rickman...



Aliciak 19 urte ditu eta mundu magikora bueltatu da, bertan Kapelugile Zorua, Untxi Zuria, Tweedledee eta Tweedledum, Beldarra eta Chesireko Katua lagunekin berriro batzeko. Erregina Gorriaren erreinuari egingo die aurre.

## HILDAKOAK

- Fco. Javier Juárez Rozas. 55 urte. 2010-IV-2.
- M<sup>a</sup> Luisa Orozko Arrillaga. 83 urte. 2010-IV-7.
- Iñaki Larrinaga Lejardi. 74 urte. 2010-IV-8.
- Lidia Juncal Fernández García. 17 urte. 2010-IV-8.
- Jonathan Martínez Arce. 20 urte. 2010-IV-8.
- Eider Escribano León. 16 urte. 2010-IV-9.
- Izaro Martínez Pinedo. 16 urte. 2010-IV-9.
- Amalia Etxeberria Agirre. 82 urte. 2010-IV-11.
- Ramona Airas Cid. 89 urte. 2010-IV-12.
- Jose Benito Hernández Mateos. 66 urte. 2010-IV-12.
- Pepita Atorrasagasti Arabaolaza. 78 urte. 2010-IV-13.
- Ines Fernández Etxeberria. 84 urte. 2010-IV-14.

horoskopoa

**ARIES**

Izerdi pixka bat botatzeko sasoia heldu da. Neguan ahalik eta gutxien mugitu duzu gorputza, baina kirola egiteko une aproposa heldu zaizu.

**TAURUS**

Ez duzu arazo handirik izango datozen egunotan, baina ez zara oso umoretsu egongo. Buruan zerbait izango duzu bueltaka eta eragina izango du zugan.

**GEMINI**

Lagun handiak dituzu eta momentu txarrenetan ere zure alboan egongo dira. Ederki ikusiko duzu hori datorren astean. Baloratu egizu.

**CANCER**

Nahiko alper ibiliko zara, eta ahal denik eta gutxien mugitzea nahi izango duzu. Hala ere, batzuetan ez dago aukerarik: birkargatu pilak.

**LEO**

Ahara eramaten duzuna ondo zaindu arren, egun batzuetarako ahaztu eta dietari ez diozu kasurik egingo. Zorrotzegia zara batzuetan.

**VIRGO**

Amets goxoa edukiko duzu domekan, aste guttian bueltaka izango duzuna. Eta ametsa egia bihurtzen bada? Tira, momentuz ametsa baino ez da.

**LIBRA**

Zorak kitatuko dituzu lagun batekin eta bakean utziko zaitu behingoz. Hurrengoan badakizu: bueltatzea kostatuko zaizun ezer ez eskatu.

**SCORPIUS**

Afizio berri bat bilatuko duzu eta orduak eskainiko dizkiozu hemendik aurrera. Hala ere, kontuz ibili: ez dadila obsesio bihurtu.

**SAGITTARIUS**

Bizipoz bereziarekin igaroko duzu datorren astea eta ingurukoek ederki somatuko dute hori. Zure poza kutsatuko diezu besteei.

**CAPRICORNIUS**

Ahalegin handi eta sakrifizioek bere saria daukate amaieran. Gainera, horrela hobeto ospatzen dira une horiek, kostata lortutakoak.

**AQUARIUS**

Enkargu bat jasoko duzu, baina zure memoriak ez du barnean gordeko eta ahaztu egingo zaizu. Ea zer asmatzen duzun akatsa zuzentzeko.

**PISCIS**

Dena ilun ikusten baduzu ere, trankil egon zaitezke zorion egunak baitatozkizu. Irrifarrea izango duzu ahoan berehala.

**Barixakua 16**

**KONTZERTUA**

**20.30.-** Juan Pinilla flamenko-kantariaren kontzertua. Sarrera: 7 euro. Coliseoan.

**Zapatua 17**

**UMEENDAKO ANTZERKIA**

**17.00.-** "Tatxin Tatxan" (Sointek Produksioak). Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

**IKASTOLAREN JAIALDIA**

**19.00.-** Ikastolaren 50. urteurren jaialdia, musika, dantza eta bestelako ikuskizunekin. Sarrera: hiru euro. Astelena frontoian.

**MEZA**

**19.00.-** "Pedrucho"-ko hildako bazkideen aldeko meza. San Andres elizan.

**Domeka 18**

**TXIRRINDULARITZA**

**10.30.-** 50. Otxoa Memoriala. Irteera Untzagatik. Amaiera, 12.10ak aldera, Urkizun.

**PEDRUCHOREN BATZARRA**

**11.30.-** Eibarko Pedrucho Zezenzaleen Elkarteko urteko batzarra, San Andres elizako lokaletan. Piskolabisa.

**14.30.-** Bazkaria eta Gabriel Sánchez Reina "Macho"-ri omenaldia. Arrate hotelean.

**Astelehena 19**

**IKASTAROA**

**17.00.-** Proiektu eraginkorrak zelan diseinatu eta landu jakiteko ikastaroaren hasiera. Portalean (ikastaro gelan).

**IKASTAROA**

**19.00.-** "Argazkilaritza digitala" ikastaroaren hasiera. Portalean.

**Martitzena 20**

**IKASTEN**

**10.00.-** "¿Por dónde camina la literatura contemporánea? Un viaje a través del relato breve", José Domingoren eskutik. EPAn (Isasi 39).

**Eguaztena 21**

**IKASTAROA**

**17.00.-** Proiektu eraginkorrak zelan diseinatu eta landu jakiteko ikastaroa. Portalean (ikastaro gelan).

**IKASTAROA**

**19.00.-** "Argazkilaritza digitala" ikastaroa. Portalean.

**UMEEN DANBORRADA**

**19.00.-** Umeen danborradarako entsegua (Bittor Sarasketa, 7).

**Eguena 22**

**IKASTEN**

**10.00.-** "El mercader Martín López de Isasi. Un empresario del Bajo Deba", José Antonio Azpiazuren eskutik (Aulas Kutxa). Sarrera librea. EPAn (Isasi, 39).

**EGO IBAR ZINE KLUBA**

**17.30 eta 21.00.-** "Edén al oeste" (Zuz: Costa-Gavras). Hezkuntza Esparruan.

**GURASOAK MARTXAN**

**18.30.-** "Gurasoentzako internet" hitzaldia. Mogel-Isasi ikastetxean.

**HITZALDIA**

**19.00.-** "Artearen Bidean". Hizlariak: Jose Antonio Azpilikueta, Mikel Gárate, Josu Torrealday, Julen Agirre eta Ane Aranberri. Antolatzailea: I. Zuloaga Institutuak, Arte Batxilergoaren 10. urteurrenean.

**KALEETAN KANTUZ**

**19.30.-** Kaleetan Kantuz-erako entsegua. S. Andres elizako lokaletan.

**DENBORAPASAK**

SUDOKUA

		5			3		7	
			9					4
1	7				4	8		2
						1	9	
				7				
	2	4						
5		1	4				6	3
3					5			
	6		8			5		

9	5	7	4	2	8	6	1	3
1	8	4	5	3	6	2	9	7
8	2	3	9	7	1	4	5	6
3	1	9	6	5	2	8	7	4
5	9	6	3	4	7	8	2	1
7	4	2	8	1	9	5	3	6
2	3	5	1	8	4	7	6	9
6	7	9	2	6	3	1	4	5
4	6	1	7	9	5	3	8	2

AURREKOAREN EMAITZA



EGUNAREN DENTZALA	EGUNAREN GARRIBATA	EGUNAREN IBAROLA	EGUNAREN MENDIEN PENA	EGUNAREN MENDIEN MENDIEN PENA

## erakusketak

- Apirilaren 18ra arte  
**MARIANO GARAY**-ren argazki erakusketa.  
*Topalekuan.*
- Apirilaren 30era arte  
**CANDIDO BARCO**-ren "Laos" argazki erakusketa.  
Klub Deportiboan.
- KLUB DEPORTIBO**ko argazki taldearen  
"Aratosteak" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- JOSE LUIS IRIGOIEN**-en argazki erakusketa. Arteka  
liburu-dendan (Artekale, 20. Durango).
- Maiatzaren 2ra arte  
**EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA**-ren taldekako  
erakusketa. *Portalean.*
- EIBARKO IGNAZIO ZULOAGA**ko ikasleen  
EGUNGO ISLAK. *Portalean.*
- Maiatzaren 4ra arte  
**IMA ELORZA** (eskulturak) eta **IMANOL ELORZA**  
(olioak). *Untzaga jubilatuen etxean.*

## lehiaketak

- **Lip Dub lehiaketa.**  
Gaia: Eibarko merkataritza eta ostalaritza. Informazioa: *Apirilak 29ra* arte,  
www.eibar.org helbidean.
- **Sanjuanak 2010 Eibarren kartel lehiaketa.**  
Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzak 14ra* arte, Pegoran.
- **Alkohol Gehiegikeriaren Kontrako Umorezko Pegatina Lehiaketa.**  
Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzak 14ra* arte, Pegoran.
- **2010-2011 Eskola Agenda argazki lehiaketa.**  
Norentzat: 12 eta 18 urte bitarteko eibartarrentzat. Informazioa eta lanak entregatzea:  
*Maiatzak 14ra* arte, Pegoran.
- **Armeria Eskola: mendeurren irudia aukeratzeko lehiaketa.**  
Lanak entregatzea eta informazioa: Armeria Eskolan, *maiatzaren 10etik 28ra* bitartean.
- **Li (buru-hausgarriak).**  
LH-ko 2. mailatik aurrerakoentzat. Noiz: *apirilaren 20tik ekainaren 14ra* arte, Liburutegian.

## ikastaroak

- **Udalekuak.**  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Udalekuak. Norentzat: 14-17 urte bitartekoentzat. Izen-ematea:  
943445980 www.gipuzkoa.net/oporraldi; Portalean, 943708435. *Apirilaren 21era* arte.

## telefono jakingarriak

SOS delak .....	112
Pegora .....	010
Udaletxea .....	943 70 84 00
Portalea .....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB .....	943 20 38 43
Epaitegia .....	943 03 34 00
Iberdrola .....	901 20 20 20
Naturgas .....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza .....	943 53 17 00
Eusko Tren .....	902 54 32 10
Pesa .....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00, 08.00, 08.50, 09.00 eta 09.30etik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 12.30, 13.30, 15.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etik 15.30etara ordu, 15.00, 15.50etik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 07.30etik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etik 21.40etara ordu erdira. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etik 21.40etara ordu erdira.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etik 20.30-etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etik 22.35etara ordu erdira. Zapatuak: 07.00etik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etik 21.15etara ordu erdira eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etik 22.13-etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai Bidebarrieta kalean. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Eguzkitsua. Sartzeko moduan. Tel. 635-209084.
- Pisua salgai Polonia Etxeberriar 3 logela, sukalde-jangela eta komuna. Berogailu individuala, gas naturalarekin. Sartzeko moduan. Garajea hartzeko aukera. Tel. 943-701652 edo 685-784850.
- Elgoibarko Basarte auzoan pisua salgai, garajearekin. 77 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua eta egoera onean. Bizitzera sartzeko moduan. Oso aukera ona. Tel. 647-372033.
- Errebal kalean pisua salgai. 4 logela, egongela, sukalde handia, komun bi, despatxoa eta terraza. Berritua eta argitsua. Deitu arratsaldez. Tel. 605-772606.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. 160.000 euro. Tel. 649-091192 edo 636-930962.
- Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berritua. 25.000.000. pta. Tel. 659-687736.
- Pisua salgai Ipuruan, J.A. Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukaldea despentsarekin, komuna eta trasteroa. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 661-291898 edo 610-603631.

### 1.2. Errentan

- 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 608-474923.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 664-111706.
- Mutil batek logela alokatuko luke Eibarren, Bidebarrieta kalean. Tel. 630-392468.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 646-048823.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 630-451870 edo 943-206719.

### 1.3. Konpartitzeko

- Eibarko neska arduratsuak beste lagun bat behar du etxea konpartitzeko. Tel. 652-716135.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberriar. 22 m<sup>2</sup>. Tel. 943-701652 edo 685-784850.

### 3.2. Errentan

- Lokala alokagai Otaola Etorbidea, 27an. Gazteen kuadrila baten-tzat aproposa. Tel. 657-795679.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Goizez. Tel. 666-156651.
- Erizain laguntzailea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 658-030724.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 649-808071.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 648-143804.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 680-223378.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 943-531903.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 618-096628.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu, kamarera moduan eta garbiketarako. Esperientzia. Tel. 608-376387.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 943-171583.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko: umeak, nagusiak, garbiketarako. Tel. 669-966611.
- Emakumea eskaintzen da externa moduan lan egiteko. Tel. 659-080186.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria kurtsua egina. Tel. 646-235195 edo 943-531903.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-223378.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-973549. Karen.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 943-171583 edo 608-474923.
- Mutila eskaintzen da kamarero edo peoi moduan lan egiteko. Tel. 697-481489.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. 11.00etatik 17.00ak arte. Tel. 679-910991.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 943-531218.
- Neska eskaintzen da orduka lan egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 663-786976.
- Neska eskaintzen da etxeko edo garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Tel. 666-008994.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna, externa edo orduka. Tel. 650-152866.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna, externa edo orduka. Tel. 666-771151.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 609-217705.
- Emakumea eskaintzen da 16.00etatik 21.00 arte umeak zaindu eta garbiketarako eta gauez nagusiak zaintzeko. Tel. 630-404538.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Gauez ere bai. Tel. 656-493864.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 676-659261.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Asteburuetan ere. Tel. 669-688755.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Orduka. Tel. 659-213249.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 638-344377 edo 943-530745.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 638-482478.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeak edo tabernak garbitzeko. Tel. 636-302237 edo 943-033805.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanetarako. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-603029.

- Neska eskaintzen da kamarera edo sukaldari moduan eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 657-142376.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 639-962219.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduzabala. Tel. 699-609190.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 697-702158.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 669-966611.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 659-710226.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 696-735112. Carmen Julia.
- Mutila eskaintzen da igeltsero edo sukaldari laguntzaile moduan, banaketak egin eta nagusiak zaintzeko. Tel. 638-344377 edo 943-530795.
- Gizonezkoa eskaintzen da elektrizista, igeltsero edo sukaldari laguntzaile moduan. Tel. 638-527915 edo 943-530132.

### 4.2. Langile bila

- Sukaldari laguntzailea behar da. Ezinbestekoa autoa izatea. Tel. 679-950907.
- Kamarera/o behar da Maixa tabernan. Tel. 605-908924.
- Lagun bat behar da ume bi zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 600-625117.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- EGA titulodun injeniaritza ikasleak Batxilergora arteko ikasgaien klase partikularrak ematen ditu. Orduka. Tel. 679-560138.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Combi hozkailu ia berria salgai. 150 euro, negoziagarriak. Tel. 943-120308.


### 6.2. Eman

- Hilabeteko artzai-txakur arra oparitzen da. Tel. 686-598460.

### 6.3. Galdu/Aurkitu


- Hilaren 9an pultsera galdu nuen. Tel. 678-785247.
- Ezkontz-eraztuna galdu da hilaren 10ean, Usartza-Kalamua tarte-an. Zilar eta beltz kolorekoa. Tel. 650-435436.
- Aliantza aurkitu da San Andres parrokiako kulunka parkean. Tel. 943-702602.

# Hortzordeekin arazoak?



## Goiko hortzordeak

- ✓ Janarien zaporea blokeatzen du
- ✓ Plastikoa artifiziala
- ✓ Itsasgarri likatsuak
- ✓ Hozkada ahula
- ✓ Goragaleak
- ✓ Egoera deserosoak



## Goiko aldeko implanteak


- ✓ Ahosabai garbia
- ✓ Plastikorik gabe
- ✓ Itsasgarririk gabe
- ✓ Hozkada indartsua
- ✓ Goragalerik gabe
- ✓ Ustekaberik gabe

*Zure hortzordeek jaterako oztopo bihurtu zaizkizu eta zure irribarrea eta itxura lehengoak ez izatea ekarri dizkizute? Orduan, zertarako xahutuko duzu zure dirua adabakietan? Badira soluzio BERRIAK inplanteetarako aurrez baztertutako lagunentzat.*

**Deituiguzu 902 468 209ra eta korreoz bidaliko dizugubestelako informazio guztia.**

*Jan eta barre egitea zoragarria izan daiteke berriro!*

Ibarbea Zehar., z/g (Rialto Zehar.) EIBAR [www.esteticadelasonrisa.com](http://www.esteticadelasonrisa.com)



Andoni Guisasaola Ron Dokorea  
R.P.S. 1566/5



**GOIMEK**

Doitasun handiko mekanizazioan  
puntakoa den kooperatiba gazte  
batek honako hauek behar ditu:

MONDRAGON

## ZENBAKIZKO KONTROLDUN FRESATZEKO MAKINARAKO LANGILE BAT (21/10 Erref.)

**LANPOSTUAREN PROFILA:** Fresatzeko makina handiak (zubiak, zutabe mugikorrekoko makinak edo mandrinatzeko makinak) erabiltzen —bai arbastatze-eragiketetan, bai akaberrakotan— esperientzia duen pertsona bat behar dugu.

**ESKATZEN DUGU:** Goi-mailako heziketa-zikloko trebakuntza, antzeko lanposturen batean eskarmentua izatea, CNC HEIDENHAIN erabiltzen jakitea, euskara menderatzea, ekimena taldean lan egiteko gaitasuna izatea eta egiatza-pertsonak (aleometroak, mikrometroak...) erabiltzen jakitea.

**ESKAITZEN DA:** Lanpostu finko batean berehala hastea eta esperientziaren araberako ordainsaria.

## DOIKUNTZA-EKIPORAKO LANGILE BAT (Ref. 22/10)

**LANPOSTUAREN PROFILA:** Doikuntza mekanikoan eskarmentua duen pertsona bat behar dugu. Errasketatze-lanak eta alitzinamendu-noranzkoaren kontrako fresatzeko makinako fresatzea menderatu behar ditu, doikuntza-lanak egiteko, zuzatzeko makina eradiala erabiltzeko...

**ESKATZEN DUGU:** Ezinbestekoa da arlo hauen gaineko ezagutza eta egiatza-tutako esperientzia izatea: Goi-mailako heziketa-zikloa edo egiatza-tutako esperientzia lanpostu horretan, planoak interpretatzea, garabiak erabiltzea eta doikuntza zehatza. Turcike itsasleko prozesua ezagutzea eta euskara balioetsiko da.

**ESKAITZEN DA:** Lanpostu finkoan berehala hastea eta esperientziaren araberako ordainsaria.

LKS

Elaboratua: 2010ko azaroaren 22an. Erreferentzia: 2010/22. Erreferentzia: 2010/22. Erreferentzia: 2010/22.

MONDRAGON

Elaboratua: 2010ko azaroaren 22an. Erreferentzia: 2010/22. Erreferentzia: 2010/22. Erreferentzia: 2010/22.

Toribio Etxebarria, 18 943 70 29 23


Arragueta, 20

943 25 44 21

**MILA ESKER**  
*gure bezero  
eta lagun guztiei*

PARAFARMAZIA  
DIETETIKA

**FARMALUR**



D  
I  
E  
T  
E  
T  
I  
K  
A

**PARAFARMAZIA**

*denda berria 7. Etxebarria, 18-an*